BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA

LEHENDAKARIAREN EBAZPENA / RESOLUCIÓN DE LA PRESIDENTA

2026AKN20007 · HAZILAN+ (LORPEN / OSATU) · 2027–2029

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOA IREKITZEA

Espedientea: 2026AKN20007. Zerbitzu-kontratua. Prozedura ireki arrunta; hainbat esleipen-irizpide. Aldez aurreko izapidetzea.

APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN Y APERTURA DE LA LICITACIÓN

Expediente: 2026AKN20007. Contrato de servicios. Procedimiento abierto ordinario; pluralidad de criterios de adjudicación. Tramitación anticipada.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Beterri-Buruntza Mankomunitateak HAZILAN+ programa garatzen du eskualdeko pertsonen enplegagarritasuna eta laneratzea sustatzeko. LORPEN eta OSATU ibilbideek orientazioa, prestakuntza, mentoringa, enpresa-prospekzioa, jarraipena eta justifikazio teknikoa uztartzen dituzte.

ANTECEDENTES

Primero.– La Mancomunidad Beterri-Buruntza desarrolla el programa HAZILAN+ para favorecer la empleabilidad y la inserción laboral de las personas de la comarca. Los itinerarios LORPEN y OSATU integran orientación, formación, mentoring, prospección empresarial, seguimiento y justificación técnica.

Bigarrena.– Enplegu eta Prestakuntza Sailak egindako hasiera-txostenean kontratuaren beharra eta egokitasuna, baliabide propioen urritasuna eta LORPEN eta OSATU prestazioak lote bakarrean kontratatzeko arrazoi tekniko eta koordinaziokoak justifikatzen dira.

Segundo.– El informe de inicio del Departamento de Empleo y Formación justifica la necesidad e idoneidad del contrato, la insuficiencia de medios propios y las razones técnicas y de coordinación que aconsejan contratar conjuntamente las prestaciones LORPEN y OSATU en un único lote.

Hirugarrena.– Espedientean administrazio-klausula partikularren agiria eta karatula, preskripzio teknikoen agiria, hasiera-txostena eta Idazkari-Kontuhartzailearen txosten juridikoa daude. Kontuhartzailetzaren fiskalizazio- eta aurrekontu-dokumentazioa ere izapidetu da, eta behin betiko aldeko fiskalizazioa eta beharrezko aurrekontu-egiaztapenak onarpena gauzatu aurretik egiaztatu behar dira.

Tercero.– El expediente incorpora el pliego de cláusulas administrativas particulares y su carátula, el pliego de prescripciones técnicas, el informe de inicio y el informe jurídico del Secretario-Interventor. También se ha tramitado documentación presupuestaria y de fiscalización, debiendo verificarse la fiscalización favorable definitiva y las comprobaciones presupuestarias necesarias antes de hacer efectiva la aprobación.

Laugarrena.– Hasierako kontratuak 2027ko ekitaldian LORPENen bi edizio eta OSATUren bi edizio egitea aurreikusten du; urtebeteko bi luzapen posibleek, 2028an eta 2029an, programa bakoitzeko edizio bana hartuko lukete. Luzapen bakoitzak kontratazio-organoaren berariazko erabakia beharko du.

Cuarto.– El contrato inicial comprende en 2027 dos ediciones de LORPEN y dos de OSATU; las dos posibles prórrogas anuales, en 2028 y 2029, comprenderían una edición de cada programa por anualidad. Cada prórroga requerirá acuerdo expreso del órgano de contratación.

Bosgarrena.– 2027ko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 50.000,00 eurokoa da, agirietan aurreikusitako BEZaren salbuespenaren arabera; LORPENen gehieneko unitateko prezioa 7.000,00 euro/edizioa da, eta OSATUrena 18.000,00 euro/edizioa. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 eurokoa da, BEZik gabe, luzapenak barne: 2027an 50.000,00 euro, 2028an 25.000,00 euro eta 2029an 25.000,00 euro.

Quinto.– El presupuesto base de licitación para 2027 asciende a 50.000,00 euros, conforme a la exención de IVA prevista en los documentos; los precios unitarios máximos son 7.000,00 euros/edición de LORPEN y 18.000,00 euros/edición de OSATU. El valor estimado del contrato asciende a 100.000,00 euros, IVA excluido, incluidas las prórrogas: 50.000,00 euros en 2027, 25.000,00 euros en 2028 y 25.000,00 euros en 2029.

ESKU820d790c-ca82-4ef9-9147-5441d16545cc

Seigarrena.– Kontratazioa 2026an aldez aurretik izapidetzen da, 2027an gauzatzeko. Adjudikazioa kontratua finantzatzeko baliabideak benetan finkatzearen baldintza etengarriaren mende geratuko da, SPKLren 117.2 artikuluaren arabera, eta gastuaren baimena aurrekontu-baldintzen eta etorkizuneko ekitaldiei buruzko arauen menpe egongo da.

Sexto.– La contratación se tramita anticipadamente en 2026 para su ejecución desde 2027. La adjudicación quedará sometida a la condición suspensiva de la efectiva consolidación de los recursos que han de financiar el contrato, conforme al artículo 117.2 de la LCSP, y la autorización del gasto quedará sujeta a los requisitos presupuestarios y al régimen aplicable a ejercicios futuros.

Zazpigarrena.– Idazkari-Kontuhartzailearen txosten juridikoak kontratazioaren egokitasuna eta prozedura irekia babesten ditu. Agiriak eta espedienteko datu ekonomikoak koherenteak direla, kredituari buruzko baldintzak eta BEZaren tratamenduaren betekizunak betetzen direla egiaztatu behar da.

Séptimo.– El informe jurídico del Secretario-Interventor avala la procedencia de la contratación y del procedimiento abierto. Deben verificarse la coherencia de los pliegos y de los datos económicos del expediente, los requisitos relativos al crédito y el cumplimiento de las condiciones del tratamiento del IVA.

Horiek horrela, Lehendakaritzari dagozkion eskumenak erabiliz,

En virtud de lo expuesto y en ejercicio de las competencias atribuidas a esta Presidencia,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

LEHENENGOA.– 2026AKN20007 kontratazio-espedientea onartzea, HAZILAN+ (LORPEN eta OSATU) programaren 2027ko zerbitzuak kontratatzeko, urtebeteko bi luzapen posible aurreikusita, espedientean jasotako dokumentazioaren arabera. Onarpenaren eraginkortasuna aldez aurretik dagokion aldeko fiskalizazioa eta aurrekontu-baldintzak egiaztatzearen mende geratuko da.

PRIMERO.– Aprobar el expediente de contratación 2026AKN20007 para los servicios del programa HAZILAN+ (LORPEN y OSATU) en 2027, con previsión de dos posibles prórrogas anuales, conforme a la documentación del expediente. La eficacia de la aprobación queda supeditada a la previa comprobación de la fiscalización favorable y de los requisitos presupuestarios pertinentes.

BIGARRENA.– Administrazio Klausula Partikularren Agiria, haren karatula eta Preskripzio Teknikoen Agiria onartzea, lizitazioan argitaratuko diren behin betiko bertsioetan.

SEGUNDO.– Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, su carátula y el Pliego de Prescripciones Técnicas, en sus versiones definitivas que serán objeto de publicación.

HIRUGARRENA.– 2027ko hasierako kontraturako 50.000,00 euroko gehieneko gastua baimentzea, 5 0100.471.241.00.00 kreditu-konpromezuaren kargura, dagokion 2027ko aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintzapean. 2028ko eta 2029ko luzapenetarako 25.000,00 euroko gehieneko aurreikuspena ezartzen da urte bakoitzeko, baina horrek ez dakar luzapenik ez gasturik automatikoki onartzea; horiek berariazko erabakia eta dagokion aurrekontu-estaldura beharko dituzte.

TERCERO.– Autorizar el gasto máximo de 50.000,00 euros correspondiente al contrato inicial de 2027, con cargo al crédito comprometido (5 0100.471.241.00.00), condicionado a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el presupuesto de 2027. Se establece una previsión máxima de 25.000,00 euros para cada posible prórroga de 2028 y 2029, sin que ello implique la aprobación automática de prórrogas ni de gastos, que requerirán acuerdo expreso y cobertura presupuestaria.

LAUGARRENA.– Adjudikazio-prozedura irekia, izapidetze arrunta eta hainbat esleipen-irizpide erabiliz irekitzea.

CUARTO.– Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación mediante procedimiento abierto, tramitación ordinaria y pluralidad de criterios.

BOSGARRENA.– Espedientearen aldez aurreko izapidetzea berrestea, SPKLren 117.2 artikuluaren arabera, eta adjudikazioa kontratua finantzatzeko baliabideak benetan finkatzearen baldintza etengarriaren mende jartzea.

QUINTO.– Confirmar la tramitación anticipada del expediente, de acuerdo con el artículo 117.2 de la LCSP, y someter la adjudicación a la condición suspensiva de la efectiva consolidación de los recursos que han de financiar el contrato.

ESKU820d790c-ca82-4ef9-9147-5441d16545cc

ZAZPIGARRENA.– Lizitazio-iragarkia eta legez eskatutako dokumentazioa Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman kokatutako kontratatzailearen profilean argitaratzeko agintzea, espedientearen onarpenaren aurretiazko baldintzak egiaztatu ondoren. Eskaintzak aurkezteko epea karatulan aurreikusitako 15 egunekoa izango da, aplikatu beharreko legezko gutxienekoa errespetatuta eta plataforman amaiera-data eta -ordua zehaztuta.

SEXTO.– Ordenar la publicación del anuncio de licitación y de la documentación legalmente exigible en el perfil de contratante alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi, una vez verificados los requisitos previos de eficacia de la aprobación. El plazo de presentación de ofertas será el de 15 días previsto en la carátula, respetando el mínimo legal aplicable y concretando en la plataforma la fecha y hora de finalización.

ZAZPIGARRENA.– Kontratazio Mahaia karatulan aurreikusitako osaerarekin izendatzea.

SÉPTIMO.– Designar la Mesa de Contratación con la composición prevista en la carátula.

ZORTZIGARRENA.– Kontratuaren arduraduna dagokion kontratazio-dokumentazioan izendatutakoa izango da, SPKLren 62. artikuluaren arabera; zerbitzu teknikoek gauzatzea eta programaren justifikazio-betebeharrak gainbegiratuko dituzte.

OCTAVO.– La persona responsable del contrato será la designada en la documentación contractual correspondiente, de acuerdo con el artículo 62 de la LCSP; los servicios técnicos supervisarán la ejecución y las obligaciones de justificación del programa.

BEDERATZIGARRENA.– Esleipendunak datu pertsonalen babesari, konfidentzialtasunari eta Europako funtsen finantzaketa eta justifikazioari buruzko aplikatu beharreko betebeharrak bete beharko ditu.

NOVENO.– La adjudicataria deberá cumplir las obligaciones aplicables en materia de protección de datos personales, confidencialidad y financiación y justificación de fondos europeos.

HAMARGARRENA.– Zerbitzu eskudunei agindu honen betearazpena, lizitazio elektronikoaren konfigurazioa, argitalpenak eta adjudikazio-prozeduraren gainerako izapideak egiteko agintzea. Ebazpen hau ere kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

DÉCIMO.– Ordenar a los servicios competentes la ejecución de la presente resolución, la configuración de la licitación electrónica, las publicaciones y los demás trámites del procedimiento de adjudicación. La presente resolución se publicará igualmente en el perfil de contratante.

Hernanin, sinadura elektronikoaren egunean.
LEHENDAKARIA
Patxi Ibarguren Etxeberria

En Hernani, a la fecha de la firma electrónica.
LA PRESIDENTA
Patxi Ibarguren Etxeberria

EKS | CSV: ESKU820d790c-ca82-4ef9-9147-5441d16545cc
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://erakunde.egoitza.gipuzkoa.eus?De=89310

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026AKN20007-LEHENDAKARIAREN EBAZPENA/RESOLUCIÓN PRESIDENTA (BETERI

Digitalki sinatua:

Patxi Ibarguren
Lehendakaria
Data: 2026/10/30 09:29:29